

# Hizkuntzen eta hizkuntza etxeen mundua

David Crystal

*Hizkuntzalaria*

**Itzultzailea: María Jordana\***

Munduak mota guztietako erakusketak behar ditu, hala nola arteari edo historia naturalari buruzkoak, eta, horien beharra duen moduan, munduak ere hizkuntza etxeak behar ditu. Baina, zertarako ordea? Alde batetik, giza espezieak duen kuriositate aseezina baretzeko, nondik gaitozen, nora goazen... Eta bestetik, bakarka zein komunitatean, munduan dauden beste espezie guztiak ez bezalakoak garela erakusteko. Hiri handi batean, museo, galeria edo antzeko "etxe" bat topatzea espero dugu, zeinak giza ezagutzaren eta sormenaren arlo garrantzitsuenen berri emango digun; gure arbasoek gu baino lehen egindako gauzak ezagutu ditzagun eta etorkizunera begira oinarritzat har ditzakegun bideak zeintzuk izan daitezkeen ikusteko. Zientziek, denek halako denek, espazioaren esplorazioak eta beste hainbat arlok haiei buruzko erakusketak dituzte jada. Hizkuntza, aldiz, edozein arrazoi dela eta, guztiz baztertua izan da, nahiz eta arlo guztiak deskribatzeko eta azaltzeko nahitaezkoa den.

Hizkuntza etxeak behar-beharrezkoak dira, aditzera ematen baitute hizkuntzek munduan daukaten garrantzi handia eta giza nortasunean hizkuntzak daukan paper bereizgarria ere, hortik *homo loquens*. Pertsona

\* BAT Aldizkariko argitalpen batzordeak eskerrak eman nahi dizkio itzultzaileari artikulua honen itzulpena egiteko izandako prestutasunagatik. Eskerrak, era berean, UPV/EHUko Letren Fakultateari, Itzulpengintza eta Interpretazioa Graduak hainbat praktika BAT aldizkariarekin egiteko hitzarmena Soziolinguistika Klusterrarekin sinatzeagatik.

bakoitzaren baitan badago ohikoa den hizkuntzarekiko lilura. Jendearen eta lekuen izenek kuriositatea sortzen digute. Denbora luzez eta asko pentsatzen dugu zein izango den gure seme-alaben izena. Behin eta berriaz bueltak ematen dizkiegu gure inguruan entzuten eta ikusten dugun hizkuntzan gertatzen diren aldaketei. Txundituta gelditzen gara ume batek hitz egiten ikasten duenean, gehienetan hizkuntza bat baino gehiago aldi berean ikasten baditu. Eskualde batean dauden azentu eta dialekto ezberdinek harritzen gaituzte. Hitzen historiak kuriositatea pizten digu. Gutako bakoitzak baditu interes horiek, guztiok hitz egiten eta idazten dugulako, edo gorren kasuan, zeinu hizkuntza erabiltzen dugulako. Eta jendeak bere interesak partekatu nahi ditu. Duela ez asko, Ingalaterrako iparraldeko dialektoetako hitzak urteetan zehar bildu zituen gizon zahar baten eskutitz bat jaso nuen. Ehunka eta ehunka hitz zeuzkan, baina zioen moduan, horietako asko ez zeuden bertako dialektoetako hiztegietan bilduta. Zer egin zezakeen hitz horiekin? Non artxibatu beharko zituzkeen beste pertsonak ere erabil zituzaten? Erre-  
suma Batuan hizkuntza etxea egon izan balitz, erantzungo niokeen.

Hori da hain zuzen ere hizkuntza etxe batek egiten duena. Bakoitzaren baitan dagoen energia linguistikoa bideratzeko behar diren tresnak eta tokia eskaintzen ditu. Galdera baten erantzuna behar dugunean edo gure kabuz erantzun bat lortu dezakegula pentsatzen dugunean horra jo behar dugu. Eta, zenbatu ezin daitezkeen galdera mordoa dago, zenbatu ezin daitezkeen hizkuntza mordoa dagoelako. Zaila da beti “zenbat hizkuntza daude munduan?” galderari erantzutea, izan ere, hizkuntza eta dialektoen arteko muga askotan ez dago zehaztuta. Kalkuluen arabera, 6.000-7.000 hizkuntza daude. Nazio mailan aitortuak izan diren dialekto menderatzaileen kopurua, Londreseko cockney-a edo Italiako napoliera esate baterako, 10.000ra iristen dela kalkulatu da. Eta noski, hizkuntza bakoitzean badaude zenbatezinak diren dialekto gutxituak, inoiz nazio mailan aitortuak izatea ere lortu ez dutenak. Egoera geroz eta gehiago zailtzen da hizkuntza biziak etengabe aldatzen ari direlako, eta, ondorioz, urte batean dialektoa dena hurrengo urtean hizkuntza bihurtu daiteke. Horixe bera gertatu zen antzinako Jugoslavian gerra zibila eta gero: independentzia lortu berri zuten herrialdeek, aurretik serbokroazieraren dialektoak hitz egiten zutenak, harro-harro aurkeztu zituzten beraien buruak serbiar, kroaziar eta bosniar hiztunak bezala. Orain, hirurak hizkuntza kontsideratzen dira. Baina zaila dena, interesgarria ere bada, eta azalpenik hoberena eskatzen du.

XX. mendeko azken hamarkadak garrantzitsuak izan ziren hizkuntzaren historian, hainbat kontu interesgarri agertu baitziren. Alde batetik, mun-

---

***Hizkuntza etxeak  
behar-  
beharrezkoak  
dira, aditzera  
ematen baitute  
hizkuntzek  
munduan  
daukaten  
garrantzi handia  
eta giza  
nortasunean  
hizkuntzak  
daukan paper  
bereizgarria ere,  
hortik homo  
loquens.***

**Zaila da beti  
“zenbat  
hizkuntza daude  
munduan?”  
galderari  
erantzutea, izan  
ere, hizkuntza eta  
dialektoen arteko  
muga askotan ez  
dago zehaztuta.  
Kalkuluen  
arabera, 6.000-  
7.000 hizkuntza  
daude.**

duko ekologia linguistikoa funtsean aldatu zuten hiru joera nagusiak batu ziren, bakoitza globala bere inplikazioetan. Bestetik, munduko lehen nazioarteko hizkuntza agertu zen, hots, ingelesa. Horretaz gain, jendea konturatu zen hizkuntza asko eta asko desagertzeko arriskuan edo hiltzen ari zirela. Honek krisi egoera sortu zuen eta hizkuntzak babesteko eta zaintzeko ekintza berriak bultzatu ziren. Interneten sorrera ere iraultzailea izan zen. Internetek ahozko eta idatzizko hizkuntzak eta ikuspuntu linguistikotik guztiz berria zen komunikabidea batu zituen eta gure esperientzia linguistikoa anitzari izugarritzko aukerak gehitu zizkion.

## NAZIOARTEKO HIZKUNTZA

**I** Baina, zergatik dugu orain nazioarteko hizkuntza bat? Politika, merkataritza eta kultura arrazoiak direla eta, harremanetan jarri nahi duten herrialdeen kopurua geroz eta handiagoa da. XX. mendearen bigarren erdian, nazioarteko erakunde handienaren, NBERen, partaideen kopuruak gora egin zuen. 50 partaide zeuden gutxi gorabehera eta gaur egun 193 daude. Hazkundera antzekoa izan da nazioarteko beste erakunde askotan. Ingelesaren erabileraren joera batzuk mantendu eta gorde dira honako arlo hauetan adibidez: aire garraioa, publizitatea, teknologia eta komunikabideak. Ondorioz, mundu osoan zehar zabaldu da ingelesa, linguistikaren historian inoiz gertatu ez dena. Gaur egungo estatistiken arabera, munduko populazioaren heren batek ingelesa erabiltzen du hein batean (gutxienez bi mila milioi pertsona). Zifra aipagarria da, ez ingelesa ama-hizkuntza gisa daukaten pertsonen erreferentzia egiten dielako (400 milioi pertsona bakarrik), baizik eta bigarren hizkuntza edo atzerriko hizkuntza gisa erabiltzen duten pertsonen egiten dielako. Gaur egun, ingelesa ama-hizkuntza gisa duen pertsona bakoitzeko bost pertsona daude ingelesa atzerriko hizkuntza gisa dutenak.

## HIZKUNTZEN HERIOTZA

**I** Giza historian zehar hizkuntzak etengabe agertu eta hil arren, XX. mendeko bigarren erdian hasi zen hizkuntzen arrisku eta heriotza prozesua jendartearen agertzen. Gertakarien zergatia azaltzea erraza da, hala eta guztiz ere, ez dakigu ziurtasunez zifren kopurua zein den. Munduan dauden 6000 hizkuntza baino gehiagoetatik litekeena da XXI. mendea bukatu baino lehen, hizkuntzen erdia gutxi gorabehera desagertzea (hamabost egunetatik behin hizkuntza bat hilko litzateke). Dakigunaren arabera, zifra hori historian zehar izandako txarrena da eta arrazoi nagusia nazioarteko hizkuntzek eta kulturek sortutako eragina da. Mundu osoan egindako inkesta batzuen arabera, krisiaren kontzientzia profe-

sionala 1990eko hamarkadan sortu zen, eta, kontzientzia publikoa oraindik oso eskasa da. Dударik gabe espezieen galeraren kontzientzia (mugimendu ekologistarekin lotzen dena) eta hizkuntzen galeraren kontzientzia publikoaren artean sekulako amildegia dago. Jende askok hizkuntza kontzientzia garatu behar du oraindik, eta hizkuntza etxeek zeregin horretan ere lagundu dezakete.

Azken hogeitun urteotan izugarri hazi da interesa hizkuntza aniztasunarekiko, izan ere, jendea geroz eta kontzienteago da hizkuntza asko desagertzeko arriskuan daudela. Istorioa behin eta berriz errepikatzen da arriskuan dauden hizkuntza bakoitzaren historian, horietako gehienak Europan. Europak zortea daukala esan daiteke, esperientzia asko baitu alde batetik, hizkuntza gutxiak eta egitura politiko eta administratiiboak kudeatzen eta bestetik, babesa eta gomendioak lortzeko erabakiak hartzen. Galesa, gaelikoa, katalana, erromantxera eta beste hizkuntza batzuen aldeko tokiko mugimenduek, 1990eko hamarkadan gailendu zirenak, dinamika berri bat sortu dute. Horren adibide dira honako adierazpen hauek: Eskualdeetako eta Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna eta Bartzelonako Hizkuntza Eskubideen Nazioarteko Adierazpena. Hizkuntzen heriotzari buruzko kezka erakutsi zuten nazioarteko eta nazio erakundeak (Erresuma Batuko *Foundation for Endangered Languages* edo UNESCOren Tokioko konpentsazio-ganbera) 1995 urtekoak dira. Mugimendu ekologistarekin orokorrean alderatuta, hizkuntzen aldeko mugimenduek jende gutxiren arreta erakarri dute, izan ere, duela gutxiak dira. Hala ere, ez dago zalantzarik egoera serioa denik. Proporzionalki, hizkuntzen desagertze arriskua animalia eta landare espezieena baino askoz ere handiagoa da, inork ez baitu aurreikusitako munduko espezieen erdia hurrengo mendean desagertuko denik.

## INTERNET ELEANIZTUNA

1990eko hamarkadan zabaldu ziren “herri global” eta beste kontzeptu batzuk, eta hamarkada horretan indarra lortu zuten hirugarren aldaketa nagusiari esker, alegia, Interneten sorrera. Teknologia hori hamarkadetan zehar gure artean egon arren, oso jende gutxi izan zuen interneta erabiltzeko aukera 90eko bigarren erdialdera arte; korreo elektronikoak bidaltzeko eta txateatzeko erabiltzen hasi zenean. World Wide Web-a 1991. urtean sortu zen eta Google 1999an. Gaur egun, ordenagailuari esker, komunikatzeko modu berri bat daukagu, iraultza teknologikoa, soziala eta baita linguistikoa ere eragin duena. Hedabide berri hori aipagarria da jargoi berri bat ezagutarazi digulako, baina batez ere giza komunikazioa beste esparru batzuetan erabil daitekeela erakutsi digu-

---

**Mundu osoan zehar zabaldu da ingelesa, linguistikaren historian inoiz gertatu ez dena. Gaur egungo estatistiken arabera, munduko populazioaren heren batek ingelesa erabiltzen du hein batean (gutxienez bi mila milioi pertsona).**

**Dударик gabe  
espezieen  
galeraren  
kontzientzia  
(mugimendu  
ekologistarekin  
lotzen dena) eta  
hizkuntzen  
galeraren  
kontzientzia  
publikoaren  
artean sekulako  
amildegia dago.  
Jende askok  
hizkuntza  
kontzientzia  
garatu behar du  
oraindik.**

lako eta hizkuntzaz beteriko mundua ikuspuntu iraultzaile batetik aurkezten digulako. Ez da orain arte ezagutzen ditugun hizketa eta idazketa tradizionalak bezalakoa. Hizketa bezalakoa ez da, batik bat, aurrez aurreko elkarrizketa bat mantentzen dugunean daukagun berehalako erantzunik ez baitago. Eta idazketa bezalakoa ere ez da, zentzu honetan ere aldatzen doalako. Pantailan ikusten ditugun orrialdeak aldatzen doaz animazioari eta testuaren mugimenduari esker eta, halaber, eguneratu daitezke, hizkuntza idatziaren egonkortasunak ahalbidetu ezin dezakea. Aurrez aurre eta Interneten mantentzen ditugun elkarrizketak ezberdinak dira, Interneten elkarrizketa batean baino gehiagotan egon gaitzkeelako aldi berean. Era berean, World Wide Web-a eta idazketa ezberdinak dira, ordenagailuan saguarekin klik egitea nahikoa delako orrialde batetik bestera salto egiteko. Laburbilduz, Internetak hizketa eta idazketaren ezaugarri batzuk konbinatu ditu eta komunikabide elektronikora egokitu ditu. Gainera, hizketa eta idazketak inoiz izango ez dituzten beste ezaugarri batzuk ere gaineratu dizkio. Horregatik giza komunikazioaren historian, Internetek estatus iraultzailea lortu du.

Hizkuntzen kasuan, batez ere hizkuntza gutxituen eta arriskuan dauden hizkuntzen kasuan, Interneten eragina ere iraultzailea izan da. AEBetan sortu zenez, ingelesa bakarrik erabiltzen zuen hedabide gisa hasi zen. Hala ere, 1990eko hamarkadaren erdialderako beste hainbat hizkuntzen erabilera areagotu zen. Garai hartan gehien aipatzen zen zifra honako hau zen: Interneten (web orrialdeetan) aurki zitekeen informazioaren ia %20a ingelesa ez zen beste hizkuntza batzuetan zegoen. Zifra hori %30ra iritsi zen 2000. urterako eta 2003rako %50 baino gehiagora hazi zen. Hazkunde hori gertatu zen bereziki alemaniera eta txineraren tankerako hizkuntza indartsuek geroz eta presentzia handiagoa zeukatelako sarean. Hala ere, Internetek hizkuntza gutxituei eta arriskuan daudenei eman dien aukera ez da oharkabea pasatu. Gaur egun, sarean 2000 hizkuntza inguru aurki ditzakegu. Hizkuntza horietako asko ordea, web orrialde batzuetan baino ez ditugu aurkitzen, baina borondatea (eta baliabideak eskuragarri) duten hizkuntza gutxituen komunitateetako hamaika web orrialdeetan topa ditzakegu.

Gainera, txataren eta sare sozialen agerraldiari esker, hizketa komunitate birtualak sortu dira. Horrela, distantziarengatik hizkuntza bat hitz egiteko aukera ez zeukan pertsona batek, hizkuntza hori praktikatzeko foru batean sar daiteke eta eguneroko elkarreraginak dakartzan berehalako onurak frogatu. Lehen, hizkuntza komunitate batzuen hizkuntza propioa hedabideetan agertzea (telebista saioetan edota prentsan) komunitatearen baliabideetatik haratago zegoen eta horregatik, Interneten

egokitasuna, ekonomia eta hedadura opari bat dira komunitate horientzako. Komunikabide honen jabetza zentralizatua ez dagoenez, aniztasunari mesede egiten dio. Adierazpena, aurkezpena eta diseinua arautzen duten irizpideak pixkanaka-pixkanaka sortzen ari dira, baina oro har, Interneten hizkuntza eta estilo aniztasuna aurki ditzakegu. Gure natura linguistikoarekin alderatu dezakegu Internet. Gure adierazpen linguistiko tradizionalaren alderdi guztiak eta baita zenbait estilo berri aurki daitezke. Lehen ez bezala, Interneten, hizkuntzen mundua gure begien eta belarrien aurrean izateko aukera dugu.

## ETXEZ BETERIKO MUNDUA

**I** Nabarmena da hiru joera horietako bakoitzak nolako ondorioak izan dituen oraindik garatzen ari garen aniztasun linguistikoaren ezagutzan. Nazioarteko ingelesak helburu berri bat eskaini dio ingelesaren aldaera estandarri, mundu osoan ulergarria den komunikabidea bermatzen baitu. Horretaz gain, herri nortasuna irudikatzen duten aldaera nazionalen hazkundera sustatu du, eta, dagokienean, aldaera horietako batzuk hizkuntza berri bihurtuko dira. Internetak aldaera linguistiko eta estilistikoaren dimentsio berriak eta hizkuntzaren erabilera aztertzeke modu berriak eskaini dizkigu. Desagertzeko arriskuan dauden hizkuntzentzat ere abantaila bat badago. Hizkuntzen heriotzaren auzia izugarri zabaldu da gizartean eta hizkuntza gutxituen erabiltzaileen kontzientzia astindu du hizkuntza horien mesedetan. Gaur egun, toki guztietan ekimen berriak aurki ditzakegu, gizarteari erakusteko zertan datzan nortasun linguistikoa eta nola sustatu daitekeen. Ekimen horietako batetik abiatuta Hizkuntzen Nazioarteko Urtea ospatu zen 2008an; beraz, baliteke sekulako gauzak gertatzea. Baina iraultza guztietan gertatzen den moduan, pertsona bakoitzaren esku dago iraultzaren parte izatea edo ez. Eta hizkuntza etxeak hain zuzen, zeregina horretan lagundu gaitzake, izan ere, maila eta mota guztietako erabiltzaileak integrazteko baliabide malguak proposatzen ditu.

Hizkuntza etxeak ere, forma eta mota ezberdinetakoak izan daitezke. Adibidez, pantaila txiki bat eskolako edo liburutegiko gela batean edo hizkuntza etxe izateko prestatuta dagoen espazio handi bat eraikin publiko garrantzitsu batean. Edozein dela ere bere tokia, hizkuntzen munduari buruzko ikuspegi publikoa eskaintzen digute, beste erakunde batzuk eskaini ezin digutena. Kontuan izanda zientziak eta arteak elkarrekin dihardutela hizkuntzak nola lan egiten duen aztertzeke eta 6000 hizkuntza baino gehiagoz baliatzeko aukera dagoela, hizkuntza etxea modurik hoberena da munduari azaltzeko zer esan nahi duen *homo loquens* izatea. ●

---

**Internetek  
hizkuntza  
gutxituei eta  
arriskuan  
daudenei eman  
dien aukera ez da  
oharkabean  
pasatu. Gaur  
egun, sarean  
2000 hizkuntza  
inguru aurki  
ditzakegu.**